Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Fausto Gonzalez de Mendibil Goikuria

Legutio, Araba (1913)

Aurkibidea

Biografia

Legutioko Elosu auzokoa. Aita Elosukoa bertakoa zuen eta ama, berriz, Zeanuriko Undurraga auzokoa. Gorbeia mendian artzain ibilia. Esaldiak errimatzeko zaletasuna eta joera handia zuen.

Zintak

LEG-027

- **Proiektua**: Arabako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Data**: 2000-03-23
- **Iraupena**: 90 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Emalea**: García Uriarte, Imanol

LEG-045

- **Proiektua**: Arabako euskara

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Data**: 2001-12-01
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: Mini Disc
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea**: García Uriarte, Imanol

LEG-046

- **Proiektua**: Arabako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Data**: 2001-12-01
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: Mini Disc
- **Emalea**: García Uriarte, Imanol

Pasarteak

1. Larruskain baserrikoak milizianoei ermandako erantzuna

- **Erref**: LEG-045/006
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:05:16. **Bukatu**: 00:07:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Barazartik Zeanuri aldera, Larruskain izeneko baserri bat zegoen eta Beobide abizeneko bat bizi zen bertan. Behin, gerra garaian, miliziano talde batekin gurutzatu eta "¡Alto! ¿quién vive?" esan ziotenean, berak "Larroskin Beobide" erantzun.

2. Gorbeia mendian artzain; otsoarekin arazoak

- **Erref**: LEG-045/009
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:08:08. **Bukatu**: 00:10:18

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Natura » Fauna » Basoko animaliak

Laburpena:
Gorbeia mendian artzain ibilia da Fausto. "Neberak" deitzen zitzaion sakonunean haizeak ekarritako elurra pilatzen zela azaltzen du. Etxaguenen bizi zen bera eta San Antonioetan igotzen zen Gorbeiara ardiekin. Gerra aurrean otsoarekin izan zituen arazoak kontatzen ditu. Hasieran gauez bakarrik etortzen zen, baina gero egunez ere ardiak jaten hasi zen.

Transkripzioa
- Pastore horreik bidxok baiño zaharraue nau!
- Bai, zeu.

- Ta Gorbeidxen horreik baiño gehidxau egonekue! Bai.
- Eta txabolie nun zenduan?
- “Neveras”, “en las Neveras”. Oin be Neberetan edurre dau. Ez zarie egon Gorbeidxen sekule?
- Bai, bai...
- Bueno, ta ez dakizue nun dauen "Neveras", “las Neveras”? Oin be edurre dau, horti goitti ikusten da. "Neveras" da zer bat... sakon bat, ezta? ta edurrak ekartzen dau haxiegaz edurra, ta han dau almazenaute edurra. "Neveras". Ta han, e... gerra aurrien, gauken txabolie. Ta ni jun nintzen baten... Etxaguenen bizi gintzezan gu, hor, Etxaguenen —Etxaguen dau Muru onduen— Etxaguenen, ta ardidxekaz San Antonidxotan Gorbeidxera! Ta hasi zan otsue. Otsue ardidxek jaten! Ta gabien ekarten nozan ardidxek txabolondora —han [ardidxek] han egongo dire oindiño— txabolondora, ta etorten zan gabien otsue ta arranak. Arrana badakizue zer dan?
- Bai!
- Bueno, ardidxek eukiezan arran asko, ta arranak entzun orduen ni zarataka hasten nintzen, ta martxetan euen otsuek! Baie gero hasi zan egunez ardidxek jaten! Ardidxek jueten ziren abaro eiten, “a la sombra”, zera... Ta “mecagüen la leche”! Egunez ardidxek jaten! Ta ein san, baserri bat, zelan esaten jakon...? Otsue harrapetan, batzuk bolanderekaz ta tiroka ta holan, ta beste batzuk esperan. Ta Neberetan hil zan otsua, ha otsue.
- Hori gerra aurrien, ezta?
- Gerra aurrien.
- Gerra aurrian
- Gerra e... urte bi-edo holan lehenau gerrie baiño.

3. San Pedro (Amurrio) inguruan fronte gogorra

- **Erref**: LEG-045/012
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:13:07. **Bukatu**: 00:14:18

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Urduña goian egon arren Bizkaia da; eta Amurrio beherago, Bilbo alderago egon arren, Araba. Amurriotik gora, San Pedro gainean, eraso gogorrak egon ei ziren gerratean.

4. Gorbeia ingurua ondo ezagutzen du

- **Erref**: LEG-045/014
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:15:40. **Bukatu**: 00:16:50

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Gorbeiako Mairuelegorreta haitzuloak non dauden. Bera 22 urtean Etxaguenen bizi izan zen eta Gorbeia mendian ibiltzen zen artzain. Inguru guztia ezagutzen ei du.

5. Aldamiñapen hamabi artzain batera

- **Erref**: LEG-045/016
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:18:30. **Bukatu**: 00:19:35

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Gorbeian ibiltzen zen ardiekin eta ingurua ondo ezagutzen ei du. Aldamiñapen 12 artzain batera ikusita ei dago. Goizean goiz ardiak batu, gero larrera bota eta arratsaldean atzera bakoitza bere eskortara.

6. Iluntzean ardiak batu eskortan

- **Erref**: LEG-045/017
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:19:35. **Bukatu**: 00:20:45

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Iluntzean, ardiak eskortara ekarritakoan, batu egiten ziren. Batutako ardiek jakiten zuten nora joan behar zuten. Batu ostean, berriz larrera.

7. Batutako ardiak bereizteko "tranpak"

- **Erref**: LEG-045/018
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:20:45. **Bukatu**: 00:22:05

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Berak ardi guztiak ezagutzen zituen, baina morroiek ez. Behin 250 ardi inguru batu behar zituzten korta handi batean. Morroiei esan zien batutako ardiei ahotza botatzeko ipurdi aldera, zein zegoen batuta eta zein ez jakiteko.

8. Gorbeiako "Neberetan" artzain

- **Erref**: LEG-045/019
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:22:05. **Bukatu**: 00:23:24

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Gorbeiako "Neberetan" aldi batean bost edo sei artzain egoten ziren. Ubidekoak eta Etxaguengoak. Beraiek Etxaguendik alde egin zutenean beste artzain batzuk etorri ziren etxe hartara.

9. Artzain-txabolan, baba gorriak azukrearekin

- **Erref**: LEG-045/020
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:23:24. **Bukatu**: 00:24:10

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Behin Gorbeian "Neberetan" artzain zegoela gertatua. Berari tokatzen zitzaion sukaldari lana eta baba gorriak ipini zituen. Gatzik ez, eta haren ordez azukrea botatzea pentsatu zuten. Oso txarrak ei zeuden.

10. Udan igandero meza Igiriñaon (Gorbeian)

- **Erref**: LEG-045/024
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:30:55. **Bukatu**: 00:31:58

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Gorbeian meza ematen zuten Igiriñaon, haitz batek duen zuloan. Abuztuan igandero. Jende asko joaten zen. Baranbio eta Orozko aldeko artzainak ere egoten ziren Gorbeian.

11. Urte asko egin behar atzera Zigoitian euskaldunak topatzeko

- **Erref**: LEG-045/025
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:31:58. **Bukatu**: 00:33:44

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Etxaguenen ez zegoen euskaldun asko. Bere osaba zen euskalduna, baina Zeanurikoa izatez. Herrian zeuden beste euskaldun gutxi batzuk ere kanpotik etorriak ziren denak. Zigoitian euskaldun gutxi zen. Akostan urte asko atzera eginda aurki zitezkeen euskaldunak. Baina gutxi, hala ere.

12. "Neberetan" Ubideko eta Etxaguengo artzainak; Maurgakoak Areatzan

- **Erref**: LEG-045/029
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:41:08. **Bukatu**: 00:42:28

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Gorbeian "Neberetan" egoten ziren artzainak Ubidekoak eta Etxaguengoak ziren. Maurgan baziren artzainak baina ez ziren "Neberetan" egoten, Araba parteko Areatzan baizik. Kortabarriko txabolan egoten ei zen Maurgako Fermin artzaina. Areatza ondoan Berretin, Markinatik gora.

13. Ardi-lapurretan ibiltzen zen artzaina

- **Erref**: LEG-045/031
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:43:12. **Bukatu**: 00:45:12

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
"Cantera de los Moros", Gorbeiatik behera, "Gorostiano" aldera. Gorbeiako gurutzetik Murgia aldera dago "Gorostiano". Bertan txabolan egoten zen artzaina ardi-lapurretan ibiltzen ei zen. Beste artzainek susmoa zuten hura zela lapurra eta behin batek pozoia bota ei zion lapikora.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-12

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com